

TARIFAK APLIKATZEKO OINARRIAK**CURSO 2026-2027****LEHENENGOA. – JANTOKIKO TARIFEN ORDAINKETA**

1. Matrikula egiteak 10,5 hileko ordainketak ordaintzeko konpromisoa dakar.
2. Hurrengo taularen arabera, jantoki-tarifa aplikagarriak familia-unitateko kideen diru-sarreraren arabera izango dira, guraso bakarra edo bi gurasoko familia izanda.

Familiako per capita errenta		GURASO BAKARRA	BI GURASOKO FAMILIA
-(e)tik	-(e)ra	Jantokiko hileko tarifa	Jantokiko hileko tarifa
15000	baino gehiago	91	103
12.400,01	15.000	91	103
10.700,01	12.400	91	103
9.300,01	10.700	91	103
7.980,01	9.300	72	91
6.650,01	7.980	72	91
5.500,01	6.650	56	71
4.500,01	5.500	46	63
3.350,01	4.500,01	35	60
3.350,00	Baxuagoa edo berdina	27	56

BIGARRENA. - FAMILIA-UNITATEAREN KONTZEPTUA

1. Familia unitatearen kontzeptua Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onartzen duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren 71. Artikuluak arautzen du:

“71. Artikulua: *Familia unitatearen kontzeptua.*

1. Zerga honen ondorioetarako, familia-unitateak dira:

a) Legez bereizirik ez dauden ezkontideek eta, izanez gero, adingabeko seme-alabek osatua (gurasoen baimena izanda beraiekin bizi ez direnak salbu); unitate horretan sartzen dira, halaber, kuradoretzaren menpe dauden adin nagusiko seme-alabak.

b) Berariazko legeen arabera bikote egonkor bateko kideek eta, izanez gero, adingabeko seme-alabek osatua (gurasoen baimena izanda beraiekin bizi ez direnak salbu); unitate horretan sartzen dira, halaber, kuradoretzaren menpe dauden adin nagusiko seme-alabak.

c) Legezko banantzeetan, edo ezkontzaren bidezko loturarik nahiz bikote egonkorrik ez dagoenean, aitak edo amak eta batarekin nahiz bestearekin bizi diren seme-alaba guztiak osatzen dutena, aurreko paragrafoetan aipatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

a), b) eta c) letretan aurreikusitakoaren ondorioetarako, tutoretza edo harrera bitartez subjektu pasiboarekin lotura duten pertsonak seme-alabekin parekatuko dira aplikatzekoa den legedia zibilean ezarritako moduan. Halaber, seme-alabekin parekatuko dira epailearen aginduz subjektu pasiboaren zaintza eta babesaren pean dauden pertsonak, aurreko ez bestelako egoeretan daudenak.

2. Inor ere ezin da aldi berean bi familia-unitatetako kide izan.

3. Familia-unitateko kideen kopurua urte bakoitzeko abenduaren 31n dagoen egoerari begiratzuz zehaztuko da, familia-unitateko kideren bat urtean zehar hil bada salbu; izan ere, kasu horretan gainerako kideek baterako aitorpena aukera dezakete, hildakoaren errentak ere sartuta.
4. Aukera hori ez da bidezkoa ezkontideetako bat hil eta, urtea bukatu baino lehen, alarguna berriro ezkontzen bada".
2. Per capita errenta eta, beraz, aplikatu beharreko tarifa kalkulatzeko, familia unitateko kideetat hartuko dira, 2026ko urtarrilaren 1etik ikasturte hasiera arte jaio diren haurrak Haur Hezkuntzako lehen zikloko haur eskolan.
3. Harrera-egoeran dauden adingabeen kasuan, aurreko puntuetan xedatutakoa aplikatuko zaio harrera-familiari.
4. Inguruabar guztiak behar bezala justifikatu beharko dira, erakuden ofizialek emandako indarreko agirien bidez.
5. Matrikula egin ondoren ez dira aldaketak kontuan hartuko honako hau izan ezik: Haur Hezkuntzako lehen zikloko haur eskolan matrikula egin ondoren edo ikasturtea hasi aurretik familia guraso bakarra egoera egiten bada, beti ere egoera berria behar bezala justifikatuta
6. Era berean, 2026 urtean ikasturtea hasi aurretik familia-unitatearen diru sarrerek beherakada larria izan badute, errentak jasotzen diztuen familia-unitateko kideren bat hil delako, egoera hori agerrarazi ahal izango da, dagozkion egiaztagiria erantsita.
7. Haur baten baja egonez gero eta ikasturte berean matrikulatzen bada, familia-unitateko kideen kopurua lehenengo matrikula epekoa kontuan hartuko da.

HIRUGARRENA. – FAMILIA-UNITATEAREN URTEKO ERRENTAREN ETA PER CAPITA ERRENTAREN KALKULUA

1. Familia-unitatearen errenta PFEZ-aren aitorpena aurkeztu behar duten familia-unitateko kide konputagarri guztien errenta-aitorpenean agertzen diren likidazio oinarrien batura da (550 laukia).
2. Errenta kapita kalkulatzeko familia-unitatearen errenta zati agiri honetako bigarren oinarrian xedatutakoaren arabera zehaztutako familia-unitateko kideen kopurua egingo da, matrikula egiteko momentuan.
3. Familia unitatearen diru sarrerak 2025eko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena aurkeztuz justifikatuko da. Hala egin behar ez badute, 2025 urtean beste errenta edo diru sarrera batzuk jaso izana egiaztatzen duen dokumentazio ofiziala aurkeztu beharko da edo diru sarreren zinpeko aitorpena eta egoera sozioekonomikoa egiaztatzen duen txosten soziala aurkeztu beharko da.
4. Interesdunek berek aurkeztuko dituzte agiriak.
5. 2025 urteko diru sarreren aitorpena edo egiaztagiria ezarritako epean aurkeztu ezean, matrikula garaian jardunaldi motari dagokion gehineko kuota aplikatuko zaio ikasturte osoan.
6. Familiei, ikasturtea hasi aurretik, ordaindu beharreko tarifaren berri emango zaie.

LAUGARRENA. – KUOTAREN SALBUESPENA

1. Kuotaren salbuespena, arrisku sozial edo psikosozialeko faktoreen eraginpean dauden eta garapenean atzerapenak dituzten haurren kasuan, egoera ekonomikoaren eta familia egoeraren arabera baloratuko da. Nolanahi ere, salbuespen hau lortzeko, Berriobeitiko Udalaren Gizarte Zerbitzuetako taldearen aldeko txostena beharko da, baita Gizarte Eskubideen Departamentuko Arreta Goiztiarreko Zerbitzuarena edo NHEBZ Arreta Goiztiarreko taldearen txostena.
2. Kuota ordaintzetik salbuesteko eskaera Berriobeitiko Udaleko Gizarte Zerbitzuek edo Arreta Goiztiarreko Zerbitzuak proposatu eta Berriobeitiko Udalari bidaliko diote. Hark onartu edo ukatu egingo du, aurkeztutako txostenaren arabera. Egoki iritziz gero, jasotako proposamenari buruzko justifikazio zehatzagoa eskatu ahal izango du.

BOSTGARRENA. -MURRIZKETAK

1. Oro har, lehenengo oinarrian ezarritako tarifak murrizketak izango dituzte per capita errentaren arabera.
2. Bi anai-arrebek edo gehiagok, jantokia erabiltzen dutenean, lehenengoa diru-sarreraren arabera dagokion tarifa ordainduko du, eta hurrengoek gutxieneko tarifa.

SEIGARRENA. – HASIERAKO KUOTA

1. Hasierako kuota 100 eurokoa izango da. Matrikula egitean ordainduko da, eta haurrak eskolan egindako azken ikasturteko azken hilekoan itzuliko da, alegia, uztailan.
2. Aurreko puntuan aipatutako data baino lehenago baja ematen bada, behar bezala justifikatutako eta dokumentatutako kasuetan izan ezik (hamargarren oinarria, 11. puntua), ez da itzuliko.
3. Artika eta Berriogoitiko Haur Eskolen aukera hobekuntza matrikulen kasuan, lehendabiziko matrikulan ordaindutako hasierako kuotari eutsiko zaio, eta ez da beharrezkoa izango beste ordainketa bat egitea aukera hobetzeko matrikuletan.

ZAZPIGARRENA. – TARIFAK DOITZEA

1. Familiek ikasturte osoan kuota osoa oradindu beharko dute, honako kasu hauetan izan ezik:
 - Matrikula ikasturtea hasi ondoren egiten denean. Matrikula formalizatzen den hilabetetik aurrera ordainduko da hileko kuota. Hala ere, hilaren 15etik aurrera egiten bada (egun hori barne), lehenengo hileko kuota dagokion hileko tarifaren % 50 izango da.
 - Erabiltzailearen borondatek kanpoko kausengatik.
 - Harrera Garaian. Jantoki zerbitzua erabili ez duen egunetan menuaren zenbatekoa baino ez da deskontatuko kuotatik.
 - Ondoz ondoko 10 eskola-egunetik gorako ez-bertaratzeak, agiri bidez justifikatuta. Ez bertaratzea hasi baino hiru egun lehenago, gutxienez, familiak idatziz edo posta elektronikoz eskaera Haur Eskolara jakinarazi beharko du, honako hauek adierazita: arrazoia, justifikazioa eta absentziaren hasiera eta amaiera-data. Eskaeran adierazitako ez bertaratzearen aldiko menuaren zenbatekoa baino ez da deskontatuko.

2. Edoskitze-aldi eksklusiboa. 8 hilabete baino gutxiagoko haurren kasuan, soilik familiek emandako esnearekin elikatzen badira, menuari dagokion zatia deskontatuko da kuotatik. 8 Hilabetetik aurrera, kuota osoa kobratuko da.
3. Aurreko paragrafoetan aipatutako menuetik deskontatu beharreko zenbatekoa, menuak indarrean dagoen ikasturtearen hasierako lehen egunean duen prezioaren arabera zehaztuko da.
4. Ikasturtea hasi eta ondoren jantoki-zerbitzuan hasten bada jarraitzeko konpromisoarekin, justifikatutako arrazoiengatik eta Udalaren oniritziarekin, dagokion hileko tarifa aplikatuko da.
5. Jantoki-zerbitzuaren erabilera puntualaren kasuan, jantokirik gabeko lanaldi osoko modalitateko haurren tarifa eguneko 5 €-koa izango da, eta hileko zerbitzu-egunen urteko gehieneko eta batez besteko tarifaren arabera kalkulatu da (19 egun).

ZORTZIGARRENA. – KUOTA KOBRTZEA

1. Ordaintzeko modu bakarra matrikulatzeko unean aurkeztutako kontu-zenbakian helbideratutako ordainagiria izango da.
2. Ordainagiriak aldeztatik kobratuko dira, hau da, hilabete bakoitzaren hasieran (hilaren 1etik 5era bitartean).
3. Banku-ordainagiri bat itzultzeak, ordaintzeaz gain, 6 euroko erretegia ekarriko du.
4. Kontu-zenbakiaren edo itzulketa-eskaeraren aldaketak aldeztatik abisatuta eta idatziz egingo dira.

BEDERATZIGARRENA. – EZ ORDAINTZEAK

1. Bi ordainagiri ez ordaintzeak nahitaez baja ematea eta, ondorioz, haur-eskolan plaza galtzea ekar dezake.
2. Familiek ordaindu gabeko kuotak legezko prozedura egokiaren bidez eskatuko dira, eta dagozkion erretegiak eta legezko interesak aplikatuko dira.

HAMARGARRENA. - BAJAK

Borondatezko baja:

1. Baja-eskabideak agiri ofizial bidez aurkeztu beharko dira, behar bezala beteta eta bi gurasoek sinatuta, Berriobeitiko Udaleko eskabide orokorraren bidez, eta posta elektronikoz jakinarazi beharko da Haur Eskolaren helbidera.
2. Baja-eskaera aurkezteko azken eguna irailaren 1a izango da, lehenengo hilekoa kobratu gabe. Hala ez bada, lehenengo hilekoa kobratuko da. Horrek ez dakar hasierako kuota itzultzea, paragrafo honetako 4. puntuan aipatutako kasuetan izan ezik.
3. Ikasturtean zehar, baja-eskaera aurkezteko azken eguna, dagokion ordainagiria igorri gabe, aurreko hilaren 25a izango da. Baja hilabetea hasi ondoren gertatzen bada, ez da itzuliko ordainagiriaren zenbatekoa, eta ez da onartuko ordainagiria itzultzea.

4. Ikasturtea hasi ondoren, baja-eskabidearekin batera agiri bidez justifikatzen bada, honako hauek hartuko dira baja justifikatutzat:

- Matrikulatutako haurren gaixotasuna
- Helbide edo herri aldaketa.
- Lan-egoera aldatzea, eta horrek gerora sortutako prekarietate ekonomikoa ekartzea.

Nahitaezko baja:

5. Haurren matrikula, zeinek ikasturtea hasi eta egutegiko hamabost egun igaro ondoren, eskolan hasten ez dena.

6. Ikasturtea hasi ondoren, justifikaziorik gabe eskolara egutegiko hamabost egunez jarraian joaten ez den haurren matrikula.

7. Baja hilabetea hasi ondoren gertatzen bada, ordainagiriaren zenbatekoa ez da itzuliko, eta ez da onartuko ordainagiria itzultzea. Hasierako kuota ere ez da itzuliko.

HAMAIKAGARRENA. – PLAZA MANTENTZEA

1. Eskolan matrikula egin eta justifikatutako arrazoi batengatik bertaratu ezin den haurrak plaza mantentzeko eskubidea izango du, eta dagokion tarifa ordainduko du behar-beharrezkoa den denboran, betiere arrazoia agiri bidez justifikatzen bada.

2. Berriobeitiko Udalak eskumena izango du familiak alegatutako arrazoia justifikatutzat jotzeko edo ez jotzeko, bai eta plaza erreserbatu behar den denbora ere. Erabaki hori familiari jakinaraziko zaio behar bezala.

3. Eskolara joatea eragozten duen arrazoia desagertzen denean, haurra ez bada eskolara joaten, nahitaezko baja hartuko da, hileko kuoten sortzapena amaituko da eta plaza itxaron-zerrendaren arabera eskainiko da.